

# ¡ANSI BAT!



(NERE ADISKIDE PEPE ARTOLA-RI, BERE EMAZTEA ILL ZAN GABEAN)

Negarrez jayo gera  
Ta negarrez azi,  
Negarrik egin gabe  
Ezin gera bizi.

Igo da Joakinacho,  
Igo da zerura,  
Emanikan aurcho bat  
Ederra mundura;  
Zerutik etorririk  
Aginte on ura,  
Beregandu du Jaunak  
Betiko lekura.

Gaitz charrak iduki du  
Gogorki mendean,  
Oñazez sarturikan  
Penak biyotzean;  
Esan oi dan bezela  
Anima ortzean,  
Dubela egona da  
Luzaro gaitzpean.

Lo gabe egunaz ta  
Esna arratsean,

Beti antsi batekin  
Egon da nekean;  
Senar gizagajuak  
Oiyaren ertzean,  
Negarra iduki du  
Askotan gordean.

Aur bi gelditu dira  
Amachorik gabe,  
Egiñik umezurtzan  
Izenaren jabe;  
Osasunez gaiñuak  
Ondo badirade,  
Aitari laguntzeko  
izango dirade.

Betikotasunean  
Gozora badago,  
Len gaizki egon dana  
Orain ondo dago;  
Oñazezko gaitz ura  
Pasarik lenago,  
Zeruan daguela  
Iritziyan nago.

Gure izaera da  
Ondo berdindua,  
Jayotza eriotzak  
Dauka ordaindua;  
Etzaitz egon, Pepe,  
Batere mindua,  
Alarguntze ori da  
Jaunak agindua.

JUAN IGNAZIO URANGA.

Donostian, Otzaila-ren 1-an, 1891-an.

